

Galdera

'gela' ala 'jela': nola idatzi eta nola ahoskatu behar da?

Erantzuna

'gela' idatzi behar da.

<g> <e> eta <i> bokalen aurrean beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar da ahoskera zainduan behintzat. Baina badago salbuespenik, eta Euskaltzaindiak ez du erabaki oraindik zenbait hitzen ahoskera estandarra. Hegoaldean [x] eta Iparraldean [ɟ] ahoskatzen dira horietariko batzuk. (ikusi 4/ Gehigarria).

1/ Hau da Euskaltzaindiaren Hiztegiak ematen duen definizioa:

gel [gel - Euskaltzaindiaren Hiztegia](#)

1 iz. Gai koloidala, gelatinaren itxurakoa. *Polimero hori gel fin bat da berez, orno arteko diskoak gogortzeko erabiltzen denaren parekoa.*

2 iz. Gel egoeran dagoen produktu kosmetikoa. *Eskuak eta besoak garbitu ditu usain gozoko gel batez. Larruazal sentiberentzako gel berezia.*

2/ Ez da nahasi behar 'jela' hitzarekin:

jela [jela - Euskaltzaindiaren Hiztegia](#) iz. *Gip. Izotza, horma. Elurra ez bada, jela egiten du beti.*

3/ Ahoskerari buruz gehiago jakiteko, ikusi: [Euskara batuaren ahoskera zaindua \(euskaltzaindia.eus\)](#)

Kontsonanteak. Idatzi bezala ahoskatuko dira hizkera maila zainduan...

[...] <g> <e> eta <i> bokalen aurrean beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar da ahoskera zainduan behintzat (geologia). Azken orduko maileguetan, salbuespenak banan-bana markatuko dira. Esaterako, dagoeneko onartua dugun gin (edaria).

4/ Gehigarria:

4.1/ EIMAREN kontsulta-zerbitzuak galdera honi erantzun zion orain urte batzuk:

[Laranja: nola ahoskatu euskara zainduan?](#)

Euskaltzaindiak ez du erabaki oraindik zein den *laranja* hitzaren ahoskera euskara estandarretarako. Beraz, araua eman bitartean, bietara ahoskatu zenezake.

1/ Kontsultan diozun bezala, Euskaltzaindiak [87. araua](#) ("Euskara batuaren ahoskera zaindua") plazaratu zuen erreferentzia tresna modura euskara estandarretarako.

<j>-z idazten diren hitzen kasurako, honela dio, gutxi gorabehera:

Oro har [y] ahoskatuko da *joan* [yoan], *jai* [yai]...

● <j> hitz hasieran [y] ahoskatuko da: *jan* [yan], *jokalariak* [yokalariak], *jatekoa* [yatekoa], *jator* [yator], jabe, jasan, jaun, jo...

Badira, hala ere, [x] belareaz ahoska daitezkeenak ere: *jertsea*, *jipoia*, *jira*...

● <j> hitz barruan gertatzen denean [y] da ahoskera zainduena. Hala ere, badira erdarazko [x] belarea eta Iparraldeko [ɟ] bezala ahoska daitezkeenak ere: *garaje*, *ijito*, *moja*, *gizajo*, *kontzejupe*...

2/ Ez dakigu salbuespen horien guztien zerrendarik ote dagoen. Guk, behinik behin, ez dugu aurkitu. Baina zerrenda luzeago bat eskainiko dizugu: 2014an, EIMAK [Ahoskera](#) liburuxka argitaratu zuen (EIMAREN Estilo Liburuaren parte), Andres Alberdik paratua. Liburuaren lehen atalak ("Euskara batuaren ahoskera zaindua") Euskaltzaindiak emaniko arauak tratatzen ditu, eta zenbaitetan haiek zabalitzen eta sakontzen ditu, aholku berri batzuen bidez; betiere, Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kideen onepenarekin.

Hala, 22. eta 23. orrialdeetan, <j> grafiari dagokion ahoskerari heltzen dio:

Ahoskera zainduan, [y] ahoskera da arau orokorra:

<jai> [yaya], <jai> [yayo], <jakin> [yakin], <jan> [yan], <jaso> [yaso], <jendarme> [yendarme], <jende> [yende], <jenio> (buru-argitasun berezikoa) [yenio], <joan> [yoan], <jokatu> [yokatu], <Maju> [mayu], <Josu> [yosu]...

Badira, hala ere, inongo euskalkitan [y] ahoskatzen ez direnak, eta, beraz, salbuespen gisa, beste ahoskera bat dagokienak euskara estandarrean ere:

1. (-aje) amaiera duten hitzak ez dira berdin ahoskatzen Hegoaldean eta Iparraldean, eta inon ez dira [y] ahoskatzen.

Hegoaldean, [x] ahoskera belarra dute (gazt. *jamón*) eta Iparraldean, berriz, [ɟ] ahoskera sabaiaurrekoa (fr. *jambon*):

adaje, bisaje, engranje, fuselaje, garaje, ilaje, lumaje, makillaje, masaje (>masajista), paraje, pausaje, portzentaje, sabotaje, zuraje...

2. Hegoaldeko hitz batzuek gaztelaniazko ahoskera belarra [x] dute beti:

aje (ondoez, akats, bestondo), alproja (alfer, pikaro), antiojo (betaurreko), erloju (ordulari), esponja (belaki), forja (burdin jotze), ijito (buhame), jela (izotz, horma), jenio (aiurri), jertse (trikota), jipoi (zafraldi), jira (bira), jota (kantu zein dantza, baina ez alfabetoko letra), kalejira (biribilketa), korrejidore (agintari mota), traje (jantzia), bejondeizula, bejondeiala, majo (jator/dexente), [mutiko] pijoa (trebea, behar bezalakoa), [neska] gajoa, [mutil] gizajoa...

4.2/ Euskara Batuaren Eskuliburua: [g letra \(ge\) - Euskara Batuaren Eskuliburua \(euskaltzaindia.eus\)](#)

[...]Euskara zainduko araua zorrotza izanik ere, bada salbuespenik:

- Hitz arrunt batzuetan, zilegi dira, arauzko [g] soinua ez ezik, soinu belarra [x] Hegoaldean (es: *jamón*) eta sabaiaurreko ahostuna [ʒ] Iparraldean (fr: *jambon*). Esate baterako, honelako maileguetan: agenda, kolegio, magia, geranio...
- Badira [y] eta [dʒ] ahoskerak ere, Hegoalde/Iparralde isoglosaren arabera: gin (edaria) [yin/dʒin], ginseng (landare-sustraia) [yinsen/dʒinsen]...

4.3/ EIMA Estilo-liburua: [AHOSKERA \(EIMA Estilo-liburua\)](#) 20. or.

[...]1.3. Kontsonanteak

Oro har, arauz, idatzi bezala ahoskatu behar dira. Aipa ditzagun ñabardura batzuk, nolana ere.

1.3.1. <g> letra

[g] ahoskatu behar da euskara zainduan, hala nola [geologia], [genetika], [pedagogia], [ingeniaritza]...

16 Jakina, gainerako hizkera-mailetan diptongoa egitea zilegi da.

Bada salbuespenik, hala ere:

–Hitz arrunt batzuetan, zilegi dira, arauzko [g] soinua ez ezik, soinu belarra [x] Hegoaldean (gzt. *jamón*) eta sabaiaurreko ahostuna [ʒ] Iparraldean (fr. *jambon*). Esate baterako, honelako maileguetan:

agenda, kolegio, magia, geranio...

–Badira [y] eta [dʒ] ahoskerak ere, Hegoalde/Iparralde isoglosaren arabera:

gin (edaria) [yin/dʒin], ginseng (landare-sustraia) [yinsen/dʒinsen]